

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Jendaurrean jartzea "A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua" egikaritzeak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren handitzea. Eragindako ondasuna: hormigoizko pasabide erdieraikia, A-4624 errepidea Artziniegako ibaiaren gainetik igarotzen den zubitik beherago dagoena**

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 28ko 441/2015 Erabakiaren bidez, "A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegan (Araba) zehar igarotzen diren zatietan, egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari behin betiko onespena ematea erabaki zen.

Egiteke dauden obrak egikaritzeko premia dagoenez, eraitsi beharra dago A-4624 errepidea Artziniegako ibaiaren gainetik igarotzen den zubitik beherago dagoen hormigoizko pasabide erdieraikia.

Horregatik, eta indarreko Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 15., 17. eta 18. artikuluetan eta hura garatzen duen erregelamenduaren artikuluko horiekin bat datozenetan xedatutakoaren babespean, eragindako ondasuna jendaurrean jarriko da 15 egun baliodunez, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Epe horretan, edonork aurkez ditzake, idatziz, eragindako ondasunean izan daitezkeen hutsak zuzentzeko datu egokiak, edo aurka egin diezaioke okupatzeko beharrari, funtsezko edo formazko arrazoiak direla eta. Hala eginez gero, arrazoiak eman beharko dira adierazteko zergatik jotzen den lehentasunezko beste ondasun batzuk okupatzea, lortu nahi den xederako komenigarriagoak direlako.

Organismo, erakunde, korporazio eta partikular interesdunek ikusgai daukate espedientea Artziniegako udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiaren Errepide Zerbitzuan, bertan aztertu eta egoki diren alegazioak aurkezteko, hala baderitzote. Bi aletan aurkeztu beharko dituzte, jarritako epearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Lege eta Administrazio Zerbitzura zuzenduta (Probintzia plaza 4, 6. solairua; 01001 Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 4a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saria  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava

A-4624 ERREDIBERGIO PASARETIK IBIAN BEHERA ARTZINIEGAKO (BARRIEN GANIAN) ERDI ERAKIA DAGOEN HORMIGOZKO PASAREIUA ERABISTEA  
DEMOLICIÓN DE PASARELA SEMICONSTRUIDA DE HORMIGÓN SITUADA AGUAS ABAJO DEL PUENTE DE PASO DE LA CARRETERA-4624 SOBRE EL RÍO DE ARTZINIEGA.

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	BEHIN-BETIKOA	ERAGINDAKO AZALERA(m <sup>2</sup> )	
		POLIGONO	LURZATIA					ALDI	BATERAKO
20/100	J. MIGUEL USUSQUIZA YARRITU	DATOS CATASTRALES	PARGELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA(m <sup>2</sup> )	ZORTASUNA
		POLIGONO	30					TEMPORAL	SERVIDUMBRE
		8		ARTZINIEGA		Hormigozko pasabile erdialaika / Pasarela semiconstruida de hormigón			

Exp/Esp/le. 2019/11-B